

EUSKALDUN DESERRITU BATEN PENAK



Baserri bat dago mendi gañian
Zelaichoak bere aldamenian,
Poza dago, bai, an alde denetan!
¡Eta emen ni bizi naiz penetan!

Ni lenago an, bai, negoian
Bizitutzen nitzan chit pakian,
Bañan orain oso nago triserrik
Ta biotza arras penaturik.

Ez dago iñon, ez, neretzako pozik
Naigabea eta pena baizik,
Nere erriya beti zait gogoratzen
Et'orduban oso naiz penatzen.

Choriyaren kantua aditzian
Poza daukat nere biotzian,
Bañan poz au segiran da joaten
Eta naiz bai, berriro, tristetzen.

Ezkillaren soñuba aditurik
Gelditzen naiz tristuraz beterik,
Nere erriko ezkillaz gogoratzen
Naiz; et'onek oso nau penatzen.

Goiz lanera ni ateratutzian
Mendiari begiratutzian,

Egiten det negar oso gogotik
Euskal-lurraz, bai, gogoraturik.

Bañan ala ere naiz bizi emen
Beti, beti, naiz egon penatzen,
Munduban, bai, gauza abek gertaturik
Ez daukagu kontentatu baizik.

Doatsua ni nintzake izango
Lur maitian bizitu ezkeru,
An baserri chiki, polit batian
Nintzake ni biziko pakian.

Artaldeak chit poliki zaiturik,
Ta chorien kantak aditurik,
Ez nuke nai, ez, beste gauzarikan
Chit doatsu onla izanikan.

Euskal-lurraz naiz, bai, gogoratutzen
Eta artan, beti, det pensatzen,
Pensaera onek naiz tristeturik,
Ez det pensa nai beste gauzarik.

Ichasoa dago nere aurrian,
Nere lurra, an beste aldian,
¡Zeiñ urruti nagon bai nere erritik!
¿Nola ez naiz egongo mindurik?

.
.

Malkoa zait begitikan erortzen
Arpegiya didala bustitzen,
Naigabeaz ezin det nik kantatu
Ezin det, ez, geyago segitu.

BONIFAZIO ECHEGARAY.

